

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn BALIO ANITZEKO GIDARI-KOBRATZAILEAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA

2020KO URRIAREN 24KO PROBAK EGITEKO INFORMAZIOA ETA SEGURTASUN ETA HIGIENE ARAUAK ETA NEURRIAK

Irakurri arretaz **proben garapenari buruzko ondoko informazioa eta segurtasun eta higie arau eta neurri hauek, datorren 2020ko urriaren 24an egiaz bete daitezzen FICOBA**n (Gipuzkoako Erakustazoka), Iparralde hiribideko 43. zenbakian, Irunen.

PROBEN GARAPENA

- **Ordutegia:**
 - o Instalaziora 9:00etatik aurrera sartzea aurreikusi da, sarrera modu ordenatu eta lasaian egiteko.
 - o Probak hasteko aurreikusitako ordua: 9:30ean
- **Iraupena gutxi gorabehera:**
 - o Proba Profesional Teorikoa: 60 minutu
 - o Proba Psikoteknikoak eta Gaitasun probak: 60 minutu
 - o Euskarako idatzizko proba: 60 minutu
- **Lehenengo bi proben artean ez da atsedunik hartuko**, eta ezin izango da gelatik atera proba horiek egiten diren bitartean.
- **Euskarako idatzizko proba egin aurretik, komunera joaten utziko da**, eta aurreko probetan egon den leku berera itzuli beharko du izangai bakoitzak.
- Mahaian, **honako dokumentu eta material hauek aurkituko dituzte izangaiek:**
 - o Erantzukizunpeko adierazpenaren orria, jakinaren gainean daudela eta indarrean dauden segurtasun, higie eta osasun publikoko neurriak onartzen dituztela egiaztatzen duena (informazio moduan, dokumentu honekin batera doa eranskin gisa).
 - o Bete beharreko segurtasun eta higie neurriak (dokumentu honetan bildu direnak) jasotzen dituen orria.
 - o Probak egiteko argibideen orria.
 - o Anonimotasunaren gutun azala eta orriak (gutun azal bat bere zenbakiarekin eta haren barnean bi orri, gutun azalak duen zenbaki berdinarekin biak, eta lauki batzuk hutsik identifikazioa jartzeko).
 - o Bi gutun azal itxi, ariketak eta erantzun orriak dituztenak. Gutun azalak ezin izango dira inola ere ireki megafoniaz adierazi arte.
 - o Idazteko materiala.

- Izangaiek **mahaian goi eskuineko ertzean** jarri beharko dute **NANa edo agiri baliokidea**, behar izanez gero, haien nortasuna egiaztatu ahal izateko dokumentua ukitu beharrik izan gabe.
- **Gailu mugikorrak eta beste edozein gailu elektronikoko itzalita eduki behar dira** (ez isilik edo hegaldi moduan). Ez da onartuko smartwatch erlojurik edo kirol erloju adimendunik edo antzekorik eramatea. Hautaketa prozesutik kanpo geratuko da probak egitean komunikazio eta/edo biltegiatze teknologiak erabiltzen dituen izangaia.
- **Gutun azalean ageri den identifikazio zenbakiarekin soilik identifikatu** behar dira **erabiltzen diren Erantzun Orriak**.

Zenbakia goiko aldean idatzi behar da lehenbizi, eta ondoren, zifra bakoitza dagokion zutabean belztu.

“NAN/zenbaki” gisa adierazitako eremuko lehenengo hiru zutabeak **BAKARRIK** erabiliko dira.

Hona hemen adibide bat:

Escriba aquí su D.N.I. / N.I.E.

7	5	2					
0	0	0	0	0	0	0	0
1	1	1	1	1	1	1	1
2	2	●	2	2	2	2	2
3	3	3	3	3	3	3	3
4	4	4	4	4	4	4	4
5	●	5	5	5	5	5	5
6	6	6	6	6	6	6	6
●	7	7	7	7	7	7	7
8	8	8	8	8	8	8	8
9	9	9	9	9	9	9	9

Solo una marca en cada columna

- **Probetako materiala ezin izango da instalazioetatik atera.**
- Bertaratze ziurtagiria behar duten izangaiek laguntzaileei eskatu beharko diete azken proba amaitzean.

HIGIENE ETA SEGURTASUN NEURRIAK

1. COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak edo COVID-19 diagnostikatu izanaren ondorioz etxean bakartuta daudenak edo COVID-19 duen pertsona batekin harreman estua izan dutelako etxean koarentenan daudenak ezin izango dira probetara joan.

2. Izangaiek erantzukizuneko adierazpena bete eta aurkeztu beharko dute, jakinaren gainean daudela eta indarrean dauden segurtasun, higiene eta osasun publikoko neurriak onartzen dituztela frogatzeko.

Adierazpen hori, informazio moduan dokumentu honen eranskin gisa doana, proba egunean emango zaie izangaiei (mahaian aurkituko dituzten agirien zerrendan adierazi bezala), eta laguntzaileek jasoko dute. Erantzukizuneko adierazpena behar bezala beteta aurkezten ez duenak azterketa pabiloitik joan egin beharko du eta ezin izango ditu probak egin.

3. Azterketan parte hartzen duten pertsona guztiek (izangaiek, Hautaketa Batzordeko kideek eta laguntzaileek) beren gain hartzen dituzte bete beharreko segurtasun eta higiene neurriak, bai eta azterketarekin loturiko osasun arriskuak ere, bereziki COVID-19ren ondoriozko konplikazioekiko sentikorrek diren pertsonak badira.

4. Esparruan (FICOBA) sartu aurretik, izangaiek 1,5 metroko segurtasun tartea utzi beharko dute beste pertsonetara. Horretarako, lurlean markak jarriko dira zain dauden pertsonen arteko tartea adierazteko.

Esparruan sartutakoan, itxaronaldian eta azterketa pabiloira sartzean, izangaiek 1,5 metroko tartea utzi beharko dute euren artean. Horretarako, lurlean markak jarriko dira zain dauden pertsonen arteko tartea adierazteko.

Era berean, izangaiek pertsonen arteko segurtasun tartea utzi beharko dute, betiere, instalazio guztietan (aparkalekua, kanpoko plaza, pabiloia, komunak...), adierazitako gehieneko edukiera, hala badagokio, eta adieraziko diren zirkulazio fluxuak errespetatuz.

5. Esparruan sartzeko maskara jarrita eramango da nahitaez, eta eskuak garbitu beharko dira sarreran emango den gel hidroalkoholikoaz.
6. Sarreran tenperatura hartuko zaie izangaiei, eta ezin izango dira aretoan sartu 37,3 gradu zentigradutik gorako tenperatura dutenak.

7. Izangai bakoitzak bere pabiloira joan beharko du, urriaren 7an argitaratu zen onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendaren arabera. Sarrera ordenatua izan dadin laguntzeko, izangaiei eskatzen zaie egiazta dezatela pertsona bakoitzari probak egiteko esleitu zaion pabiloi zenbakiari buruzko informazioa, aipatutako zerrenda horretan dagoena.
8. Azterketa pabiloietan sartzeko, izangaiek NANA edo agiri baliokidea erakutsi beharko dute, eta une labur batez maskara kenduko dute nor diren egiaztatu ahal izateko. Hori egiaztatu ondoren, maskara behar bezala jarriko dute, dagokien pabiloira joango dira eta laguntzaileek emandako jarraibideak beteko dituzte, eta adierazten zaien tokian eseriko dira.
9. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da beti. Horri dagokionez:
 - Izangaiek maskara jarrita egingo dituzte probak.
 - Maskara behar bezala erabili beharko da, hau da, sudur trenkadatik kokotseraino (hura barne) estali behar du.
 - Ez da onartuko arnasa botatzeko balbula duen maskararik, ez eta “maskara ikusezinak” ere.
10. Probak egiteko, emango zaien materiala bakarrik erabili ahal izango duten izangaiek, eta material hori norberak erabiltzeko izango da.
11. Azken proba amaitzeko 10 minutu falta direnean, izangaia ezin izango dira azterketa pabiloitik atera eta beren lekuan egon beharko dute proba egiteko denbora amaitu arte. Denbora hori amaitzen denean, eta laguntzaileek dokumentazio guztia biltzen duten bitartean, izangaiek eserita eta isilik egon beharko dute. Dokumentazio guztia bildu ondoren, laguntzaileek adieraziko dute noiz atera daitezkeen pabiloitik.
12. Irteeran, izangaiek gel hidroalkoholikoz garbitu beharko dituzte eskuak eta esparrutik aterako dira.
13. Hautaketa Batzordeko kideei eta laguntzaileei tenperatura hartuko zaie esparruan sartu aurretik. Haiek ere maskara jarrita eraman beharko dute eta eskuak gel hidroalkoholikoz garbitu beharko dituzte beharrezkoa den bakoitzean eta erantzukizuneko adierazpena bete eta aurkeztu beharko dute, jakinaren gainean daudela eta indarrean dauden segurtasun, higiene eta osasun publikoko neurriak onartzen dituztela frogatzeko.

Izangaiek une oro bete beharko dituzte laguntzaileek eta Hautaketa Batzordeak emandako jarraibideak. Bestela, prozesutik kanpo utzi ahal izango dira.

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, COVID-19****DECLARACIÓN RESPONSABLE COVID-19****DATA:** 2020ko urriaren 24a**LEKUA:** FICOPA (IRUN)**DEAILDIA:** DBUS 2020**FECHA:** 24 de octubre de 2020**LUGAR:** FICOPA (Irun)**CONVOCATORIA:** DBUS 2020

Behean sinatzen duenak, Donostiako Tranbia Konpainia, SAUn Balio Anitzeko Gidari-Kobratzailearen Lan Poltsa sortzeko hautatze prozesuko partaide denak, **ADIERAZTEN DU:**

El/La abajo firmante, participante en el proceso selectivo Para la creación de la Bolsa de Trabajo de Conductor-Perceptor Polivalente en la Compañía del Tranvía de San Sebastián, S.A.U. **DECLARA:**

Ez duela COVID-19 gaixotasunarekin bateragarria den sintomarik, eta ez dela egon zuzeneko kontaktuan, azken 10egunean, COVID-19a izatea egiaztatutako edo susmatutako inorekin.

No presentar sintomatología compatible con la enfermedad COVID-19 ni haber estado en contacto directo con persona confirmada o probable de COVID 19 en los últimos 10 días.

Azterketaren instalazioetan dagoen bitartean egoki beteko dituela COVID-19ari dagokionez hartu diren segurtasun eta higiene neurriak, hain zuzen ere proben garapena antolatzeke argitara eman zirenak eta berari gaur idatziz ere eman dizkietenak; prebentzio neurrien sail ez exhaustiboa dira eta unean-unean Hautaketa Batzordeak eta laguntzaileek eman ditzakeen eta sinatzaileak beteko dituen jarraibideekin osatuko dira.

Que durante su permanencia en las instalaciones cumplirá con las medidas de seguridad e higiene relativas al COVID-19 publicadas para la realización de las pruebas y que, a su vez, se le han entregado por escrito el día de hoy, siendo esta una relación de medidas preventivas no exhaustiva, que se completará con las indicaciones que realice en cada momento el Comité de Selección y el personal colaborador y que el/la abajo firmante cumplirá.

Izen-abizenak:
Nombre y apellidos:

NAN / DNI:

Irun, 2020ko urriaren 24a / Irun, 24 de octubre de 2020.

Sinadura / Firma